

HITZA

Martitzena, 2017ko apirilaren 25a

117

Gernika-Lumo



Gernikan bere lanak bizirik iraungo duela dio Egurtzikik. OIHANA CABELLO ELORRIAGA

Egurtzikik bonbaketaren 129 lekukotza utzi ditu Bakearen Museoaren esku



13 / 17 / 2014 urtean egindako elkarrizketen funtsa hartu du bonbardaketaren dokumentazio zentroak • Lekukotzak Gernikan gordeko direlako pozik dagoela esan du Egurtzikik

-OIHANA CABELLO ELORRIAGA

William Smallwood *Egurtzikik*-k bonbardaketaren lekukoei egindako testigantzen funtsa hartu zuen atzo Gernika-Lumoko Ba-kearen Museoa.

Guztira, bonbardaketatik bizirik atera ziren 129 lagunen lekukotzak bildu zituen Egurtzikik 70eko hamarkadan, eta horiekin liburu bat idatzi zuen: *The day Guernica was bombed. A story told by eyewitnesses and survivors*. Atzo eguerdian, elkarrizketak horien transkripzioak bonbardaketaren dokumentazio zentroaren esku utzi zituen.

Testigantzen funtsa Gernika-ko bonbardaketaren dokumentazioaren esku uztean pozik dago Smallwood. «Lasaitua hartu» duela dio, «bere lanak biziraungo duelako, ez delako galduko, eta Gernikan seguru egongo delako». Egindako lana ahalik eta hoberen egiten saiatu zela esan du, eta 1937ko apirilaren 26an gertatutakoaren lekukotza herrian uzi duelako harro dago.

Elai-Alai aretoan egin zuten atzo dohaintzaren sinadura eki-

taldia. Jose Mari Gorroño alkateak, Xabier Irujo historialariak eta liburu euskarara (*Gernika bonbatu zuten eguna. Lekukoen testigantza*) itzuli duen Ane Urdurragak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Liburu bat idaztearen zergatia azaldu zuen Egurtzikik atzoko ekitaldian. Saskibaloitza eta beisbol taldeetan harreman estua hartu zuen Euskal Herritik AEBetara joandako euskaldunekin, eta haien artean lagun minak egin zituela esan zuen. Haiekin hasi zen euskara ikasten. Hala ere, 1970ean Ipar Euskal Herrira bidaiatu zuen, Renoko unibertsitateak antolatutako ikastaro batean entzule modura parte hartzeke, eta euskal munduagaz harremana hartu zuen. Gernikara ere etorri zen, Pete Cenarrusaren seme Jon Cenarrusagaz batera, eta bonbardaketari buruz berba egiteko herritarrek zuten beldurrak piztu zion gaiarekiko interesa.

AEBetara bueltan, euskara ikasi zuen asmo argi batez: Gernikara bueltatu nahi zuen, eta bonbardaketatik bizirik atera

zirenak elkarrizketatu. Egurtzikik esan bezala, ezkutuan mantendutako egia azaleratu nahi zuen, bonbardaketa egunean gertatu zenaren egia kontatu nahi zuen, egun horretako protagonista izan zirenei ahotsa emanez.


Herriarren laguntza

Lan hori burutzeko bueltatu zuen Gernikara 1971. urteko udazkenean. Herriar askoren laguntza izan zuen elkarrizketak egiteko, eta denei eskerrak eman zizkien atzo. Berezik, Maria Angeles Basabek euskara irakatsi ziola gogora ekarri zuen, eta Juanjo Mintegik gaztekeraz egindako elkarrizketen itzulpenak egin zituela. Lekukotza horietako asko anonimoak dira, jendea hitz egitearen eta izena ematearen beldur zelako.

Hala ere, testigantza izen-abizenekin eman zutenak ere badira. Bai elkarrizketatuak eta baita lan hori egiteko laguntza eman ziotenak ere garai hartan asko arriskatu zutela nabarmendu zuen Xabier Irujak atzoko aurkezpenean.

Bonbardaketa garaiko alkatea omendu dute

Gernika-Lumoko Udalak 1937ko apirilaren 26an herriko alkate zen Jose de Labauria omendu zuen zapatuan. Haren bustoaren aurrean egin zuten omenaldia udaleko zinegotziek eta Labauriaren sendiak. Gainera, Jose Mari Gorroño alkateak jakitera eman zuenez, Don Teo eta Nere Kabia kaleen artean dagoen plaza horrek Jose de Labauria izena hartuko du aurrerantzean. Labauriak garai gogorrek bizi behar izan zituela gogora ekarri zuen ekitaldiak Gorroño, eta 1937ko apirilaren 29az geroztik ezarri zuten zentsura ere aipatu zuen. «Oroimen historikoa debekatu dute 40 urtez», esan zuen alkateak, eta ez ahanzteko erabaki dutela plaza horri Labauriaren izena jartzea. GERNIKA-LUMOKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILAK**

DIRUZ LAGUNDUA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza